

# **UDALAREN OSOKO BILKURA**

## **2009ko otsailaren 25eko ohiko bilera**

### **BERTARATU DIRENAK**

#### **ALKATE-UDALBURUA**

EAJ-PNV.- ENEKO ARRUEBARRENA ELIZONDO jn.

#### **ZINEGOTZIAK**

EAJ-PNV.- JESUS BILBAO CURIEL jn.  
EAJ-PNV.- AINARA URBIETA BERGARA and.  
EAJ-PNV.- BEATRIZ RESA BARDECI and.  
EAJ-PNV.- IÑAKI GOIKOETXEA GORDO jn.  
EAJ-PNV.- M<sup>a</sup> CARMEN URBIETA GONZALEZ and.  
EAJ-PNV.- JON PELI LAZKANO ALZAGA jn.  
EAJ-PNV.- JUAN CARLOS IBARRA ARETXABAETA jn.  
EAJ-PNV.- AINARA GUZMÁN URRUTIA and.  
PSE-EE.- LUIS MARIA PEREZ PEREZ jn.  
PSE-EE.- PILAR GRADOS GARCIA and.  
PSE-EE.- J. ALFONSO LOPEZ AREVALILLO jn.  
PSE-EE.- NEKANE JIMÉNEZ FERNANDEZ and.  
PSE-EE.- JUAN CARLOS MARTINEZ LLAMAZARES jn.  
PP.- XABIER OLABARRIETA ARNAIZ jn.  
PP.- ARTURO ALDECOA RUIZ jn.  
PP.- FERNANDO PINTO PALACIOS jn.  
EB-B.- IÑAKI GOMENDIURRUTIA SÁINZ jn.  
EB-B.- ISABEL GARCÍA GARCÍA and.

#### **EZ DIRA BERTARATU:**

EAJ-PNV.- JON LOIZAGA CAYERO jn.  
PSE-EE.- ELSA LOPEZ DE TORRE CAMPO and.

#### **EUSKARA ITZULTZAILEA**

KOLDO BIGURI jn.

#### **KONTU-HARTZAILEA**

EIDER SARRIA GUTIERREZ and.

#### **BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA**

JAVIER BOLINAGA LEKUE jn.

Leioako udaletxean, bi mila eta bederatziko otsailaren hogeita bosteko arratsaldeko zazpiak direla, elizate honetako Udalaren Osoko Bilkura bildu da ohiko bilera egiteko. **Alkate-udalburua, ENEKO ARRUEBARRENA ELIZONDO jauna** izan da bileraren burua eta **behin-behineko idazkariak, JAVIER BOLINAGA LEKUE jaunak**, lagundu dio. Haiekin batera, orriaren ertzean agertzen diren zinegotziek parte hartu dute bileran eta izatez zein eskubidez Udalbatza osatzen duten kideen legezko gehiengoa osatzen dute. Alkate-udalburu jaunak aurretik egin die ohiko bileran parte hartzeko deia, guztia Toki Araubidearen oinarriak arautu dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 46.1 artikuluan ezarritakoa, aipatutako legearen 21.1.c) artikuluan azaldutakoa eta azaroaren 28ko 2.568/1986 Errege Dekretuak onetsi duen Toki Erakundearen Antolaketaren, Funtzionamenduaren eta Araubide Juridikoaren Erregelamenduaren 41.4 eta 80.1 artikuluetan xedatutakoa oinarritzat hartuta.

Adierazitako orduan eta lehenengo deialdian, Udalburutzak ekitaldia irekitzat jo du; jarraian, ohiko bilera honetako eguneko aztergaien zerrendan agertzen diren gaiak aztertu dituzte:

## **I.- ERABAKITZEKOAK**

**1.- LEIOAKO UDALAREN ETA ARANZADI ZIENTZI ELKARTEAREN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENAREN PROPOSAMENA.** Tokiko Gobernu Batzarraren 2009ko otsailaren 24ko 96 zenbakidun irizpenaren berri eman zaio Udalaren Osoko Bilkurari, berrets dezan. Hona hemen irizpenak dioena:

Ekonomi Sustapen, Prestakuntza eta Enpleguko Informazio Batzorde Bereziak 2009ko otsailaren 17an hartu zuen 8 zenbakidun irizpenak honakoa dio:

2009ko otsailaren 13an, gaurko batzordearen gai-zerrenda bidali zen eta horrekin batera baita Leioako Udalaren eta Aranzadi Zientzi Elkartearen arteko lankidetzahitzarmenaren proposamena ere, aztertze eta ondoren batzorde honetan onesteko.

PSE-EEko zinegotzia den Pilar Grados García andreak jasota utzi nahi du lankidetzari hori oso ekarpen garrantzitsua eta aberatsa dela udalerrira osoarentzat. Era berean, Ekonomi Sustapen, Prestakuntza eta Enplegu Batzorde Bereziari haien jardueren berri emateko aukera azpimarratu du.

**Ekonomi Sustapen, Prestakuntza eta Enplegu Batzorde Bereziak** egoki iritzi dio Leioako Udalaren eta Aranzadi Zientzi Elkartearen arteko lankidetzari-hitzarmenaren proposamena onesteari.

TOKIKO GOBERNU BATZARRA aipatutako proposamenaren alde agertu da eta Osoko Bilkuraren hurrengo bilerako gai zerrendan sartuko da. **ALKATETZA-UDALBURUTZAK** berau onesteko **dekretua eman du**.

### **OSOKO BILKURAREN ERABAKIA**

Udalaren Osoko Bilkurak **aho batez erabaki du** Leioako Udalaren eta Aranzadi zientzi elkartearen arteko lankidetzari-hitzarmenaren proposamena onetsiko dela, espedientean dagoen agiriko zehaztapenei jarraituz, eta Hirigintza eta Etxebizitza, Obra eta Zerbitzu, Mugikortasun eta Ingurumeneko Informazio Batzordeak emandako irizpena berretsiz.

**2.- EMAKUMEAREN NAZIOARTEKO EGUNARI BURUZKO ERAKUNDEEN ADIERAZPENA:** Tokiko Gobernu Batzarraren 2009ko otsailaren 24ko 92 zenbakidun irizpenaren berri eman zaio Udalaren Osoko Bilkurari, berrets dezan. Hona hemen irizpenak dioena:

Gizarte Ekintza, Osasun, Kontsumo, Berdintasun eta Garapenerako Lankidetzako Informazio Batzordeak 2009ko otsailaren 18an hartu zuen 16 zenbakidun irizpenak honakoa dio:

Eudelek bidali duen idazkiaren berri eman da (sarrera-erregistroko zk.: 1211). Horren bidez, Emakumearen Nazioarteko Eguneko adierazpen-eredua aurkeztu dute. Hona hemen:

Krisi ekonomikoa nagusi den egunotan, lana da euskal herritarren arduraren handienetako bat. Egoera horri aurre egiteko, euskal instituzioek, euren artean udalek, hainbat neurri abiarazi dituzte, eta, kasu batzuetan, "Krisiari aurre egiteko udal planak" egin dituzte.

Testuinguru horren barruan, industria eta zerbitzu sektoreek jasan dituzte lanaren galerarik handienak. Ondorioz, lanaren beherakadak eragin handiagoa izan du gizonengan, emakumeengan baino. Hala ere, azpimarratu gura dugu nola, oraindik ere, emakumeen okupazio tasa gizonena baino txikiagoa den (%59,1 eta %74,8, hurrenez hurren).

Krisiaren aurrean ekimen berriak abiarazi asmoz, lana sortzera bideratutako neurri guztiak positibotzat hartzen dira, zalantzarik gabe; baina, era berean, uste dugu, beharrezkoa dela emakumeak baztertu ditzakeen genero norabideak aurreikustea eta sahiestea plan horietan.

Era berean, jakinarazi nahi dugu egoera honen ondorioz, gizarte eredu patriarkal eta sexista berpizteko arriskua dagoela (gizon hornitzailea/emakume zaintzailea), orain arte landu dugun

erreferente berdintzailearen orde; hau da, emakumezko zein gizonezko hornitzaileak eta zaintzaileak berdintasunean.

JAKITUN gara, beraz, egungo krisi egoeraren barruan hainbat agente sozialek abiaraziko dituzten neurriek eragin ezberdina izango dutela emakumeengan edo gizonengan.

ADIERAZTEN DUGU beharrezkoa dela emakumeen eta gizonen eskubide guztiak osotasunean egikaritzea bermatzea, eta honezkero gure artean dagoen desberdintasunezko arrakala gehiago ez zabaltzea.

Horretarako, orain inoiz baino gehiago, KONPROMISOA HARTZEN DUGU berdintasunaren aldeko tokiko politikak indartzeko. Geure gain hartzen dugu krisiak botatako erronka, ulertzen dugulako udal eredu berdinagoetarako bidea egiteko aukera dela.

-----

En el actual escenario de crisis económica el empleo se ubica como una de las principales preocupaciones de la ciudadanía vasca. Una situación a la que las instituciones vascas, y entre ellas los Municipios, tratan de hacer frente a través de distintas medidas o la elaboración, en algunos casos, de los denominados 'Planes de acción municipal ante la crisis económica'.

En este contexto, los sectores de industria y servicios son los que están sufriendo una mayor destrucción de empleo, por lo que el descenso en la ocupación afecta en mayor medida a hombres que a mujeres. Sin embargo, queremos subrayar que la tasa de ocupación femenina sigue siendo inferior a la masculina (59,1% frente a 74,8%).

Por tanto, y entendiéndolo, obviamente, como medidas positivas todas aquéllas orientadas a la creación de empleo en el marco de las citadas medidas de iniciativa municipal ante la crisis, creemos necesario tener en cuenta y evitar un posible sesgo de género negativo para las mujeres.

Así mismo, queremos advertir del riesgo de que las consecuencias del actual escenario económico puedan provocar una reactivación del modelo patriarcal y sexista de "hombre-proveedor/mujer-cuidadora" en lugar del referente igualitario de mujeres y hombres proveedores y cuidadores en igualdad.

CONSCIENTES, por tanto, de que las medidas que se pongan en práctica desde los distintos agentes sociales en el actual contexto de crisis puedan tener impactos muy diferenciados en mujeres y hombres,

DECLARAMOS que es necesario garantizar el pleno ejercicio de los derechos de las mujeres y de los hombres de forma igualitaria y evitar un aumento de la brecha de desigualdad ya existente,

Y para ello, NOS COMPROMETEMOS, ahora más que nunca, a fortalecer las políticas locales para la igualdad, asumiendo, así, los retos del actual contexto de crisis como una oportunidad para caminar hacia un modelo de municipio más igualitario.

**Gizarte Ekintza, Osasun, Kontsumo, Berdintasun eta Garapenerako Lankidetzako Informazio Batzordeak** egoki iritzi dio gai hau Udalaren Osoko Bilkurak egingo duen hurrengo bileran eztabaidatzeari.

TOKIKO GOBERNU BATZARRA aipatutako proposamenaren alde agertu da eta **ALKATETZA-UDALBURUTZAK** berau onesteko **dekretua eman du**.

### **OSOKO BILKURAREN ERABAKIA**

Udalaren Osoko Bilkurak **aho batez erabaki du** onetsi egingo dela Emakumeen Nazioarteko Egunari buruzko erakundearen adierazpena, arestian hitzez hitz idatzi den testuan azaldutakoaren arabera.

## **II.- UDALAREN OSOKO BILKURAK UDAL GOBERNUAREN KUDEAKETARI EGITEN DION KONTROLA ETA JARRAIPENA**

**3.- ALKATETZA-UDALBURUTZAREN DEKRETUAK, 2009-02-14tik 2009-02-20ra.** Toki Araubideari buruzko Oinarriak arautu zituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 46.2.e) artikuluan, apirilaren 21eko 11/1999 Legeak emandako idazkuntzan, eta azaroaren 28ko 2586/1986 Errege Dekretuak onetsi zuen Toki Erakundearen Antolaketaren, Funtzionamenduaren eta Araubide Juridikoaren Erregelamenduaren 42. artikuluan ezarritakoaren arabera, bilkurako espedientearen agertzen dira, gero dagokien lekuan artxibatzeke kalterik gabe, epigrafean aipatutako epealdian Alkatetzak emandako dekretuen kopiak azter ditzaten.

Udalaren osoko bilkura jakinaren gainean geratu eta ados egon da.

### **4.- PRESAZKO MOZIOAK:**

Atal honetan ez da presazko moziorik aurkeztu.

### **5.- ESKAERAK ETA GALDERAK.**

Ez da eskaera ez galderarik egin.

Eta arratsaldeko zazpiak eta laurden direnean, Alkatetza-Udalburutzak ekitaldia bukatutzat eman du, eta Idazkaritza honi dagokion akta egiteko agindu dio, adostutako eran onetsi dena. Hori guztia ziurtatu dut idazkaria naizen honek.

O.E.  
ALKATEA

BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA,